



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO



IRAKASKUNTZA ETA IKASKUNTZA PLANIFIKATZEKO ORIENTABIDEAK 2020-21

**Fakultateko Batzordeak 2020-10-27an onartua
Eguneratzea: 27-10-2020**

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. AURRETIAZKO GOGOETAK	3
3. IRAKASKUNTZA EGOKITZEKO NEURRIAK	3
4. IRAKASKUNTZA IKASGELETAN, LABORATEGIETAN ETA TAILERRETAN	4
5. JARDUERA FISIKOEN IRAKASKUNTZA	4
6. PRACTICUM ETA GRAL	5
7. TUTORETZAK	5
8. ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK	5
9. GELAK EGURASTEA	5
10. EGELA ETA BILERA BIRTUALAK BBC-REKIN	6
ERANSKINA 1	7

1. SARRERA

Denok dakigunez, zalantzarik gabe beste ikasturte atipiko batera garamatzen pandemia (COVID-19) egoera batean jarraitzen dugu. Plan hau lan ordu askoren ondorio da, ahalegin kolektibo handi baten emaitza (errektore taldearekin koordinatuta), eta helburu argi bat du: prebentzio eta babes neurriak hartzea, irakasle-ikertzaileen, ikasleen eta AZPko langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, eta ikasturte berria ahalik eta modurik hoberenean burutzeko. **Plan dinamiko bat da, eguneratuz joango dena, osasun, lan eta hezkuntza arloko agintariek eta UPV/EHUK berak ezarritako ildoen arabera. Horri dagokionez, dokumentu hauek irakurtzea ere funtsezkoa da: UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluak 2020ko uztailaren 9ko saioan onartu zituen *2020/2021 ikasturterako irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak* eta *EHU Edonondik* eta *EHU Edonondik/ebaluazioak* emandako gomendioak, normaltasun berriro aldi honetan ere indarrean jarraitzen baitute.**

Egoera honetan, funtsezkoa da guztiok saiatzea elkar zaintzen. Egoerak behartzen gaitu prebentzio neurriak lehenestera, nahiz eta zenbaitetan irakats zereginaren oinarri diren neurri pedagogikoen kalterako izan. Hortaz, 2020-2021 ikasturteak modu egokian burutzeko, ezinbestekoak izango dira elkartasuna, ulermena, kontzientzia kolektiboa eta, batzuetan, pazientzia (beti oinarrizkoak diren dohainak, bide batez esateko).

2. AURRETIAZKO GOGOETAK

- Bilboko Hezkuntza Fakultateko kide guztion erantzukizuna da kontuan hartzea UPV/EHUK berak jarduera presentzialera modu seguruan itzultzeko eman dituen jarraibideak. Jarraibide horiek [hemen](#) kontsulta ditzakezu, eta komeni da horietara maiz jotzea, etengabe eguneratuko direlako.
- Bilboko Hezkuntza Fakultateak (UPV/EHU) prestatu dituen neurriak eta jarraibideak COVID-19 (SARS-CoV-2) birusak eragindako osasun alerta dela eta, weborrian dagoen Protokoloan jasotzen dira. Protokolo hau etengabe eguneratuko da gaixotasunaren eboluzioaren eta informazio berriaren arabera eta agintariek ematen dituzten jarraibideekin bat etorritik.
- Bilboko Hezkuntza Fakultateko COVID19 arduradunarekin harremanetan jartzeko zuzendu helbide elektronikoa honetara: bhf.covid19@ehu.eus

3. IRAKASKUNTZA EGOKITZEKO NEURRIAK

UPV/EHUK jarduera presentzialera modu seguruan itzultzeko eman dituen jarraibideak gure fakultatera egokitzeko, gure ikastegian hurrengo neurri gehigarriak ezarri ditugu.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

Talde bakoitzak bere ikasgela izango du klaseetarako. Kasu batzuetan, irakasleekin hitzartu da gela jakin batzuen erabilera. Zorrotz errespetatu behar da gelen erabilera, eta edozein aldaketa dekanotzari eskatu behar zaio.

Gutxienez 1,5 metroko distantzia bermatzeko, UPV/EHUK proposatutako formatu bimodalaren arabera antolatuko da irakaskuntza. Kontsultatu 1. eranskina, non zehazten diren formatu horren inguruan garatu beharreko neurriak.

Konfinamenduan egoteagatik klaseak puntualki online eman behar badira, ikasleek beren ikasgelatik jarraitu ahal izango dituzte, behar izanez gero, baina ezingo dute gela horretako baliabiderik erabili (ordenagailua, proiektorea, kamera, mikrofonoa...) arduradun baten baimenik gabe.

Irteerarik antolatuz gero UPV/EHUKo instalazioetatik kanpo, gomendatzen da dagokion lizentzia eskatzea saileko zuzendaritzari eta dekanuari, eta irteeraren berri ematea bezperan dekanotzari. Gainera, gomendatzen da ere, leku irekietan (baratzea, zelaia, arboretuma...) irteerak edo klaseak antolatuz gero, horren berri ere ematea (oso leku aproposak egoera honetan, baina printzipioz taldearentzat aurreikusita ez daudenak).

Bestetik, jardunaldiak edo batzarrak antolatu nahi badira fakultatean, baimena eskatu beharko zaio dekanotzari.

4. IRAKASKUNTZA IKASGELETAN, LABORATEGIETAN ETA TAILERRETAN

Ahal den neurrian, ikasleek ez dute materialik eta tresnarik partekatuko. Ikasleek berek garbituko dute materiala eta instalazioa, talde aldaketa egin behar denean edo talde bereko beste pertsona batek erabili behar duenean, desinfektatzailez bustitako papera erabiliz horretarako. Halaber, komeni da eskuak garbitzea materiala ukitu aurretik, gero beste norbaitek erabili behar badu. Laborategira edo tailerrera sartzean eta handik irteteen, eskuak garbituko dira nahitaez. Gainera, ikasgela guztietan, desinfektatzailea eta papera egongo da ordenagailuaren ondoan, teklatura eta sagua desinfektatzeko.

5. JARDUERA FISIKOEN IRAKASKUNTZA

Irakasleek eta ikasleek nahitaez erabiliko dute maskara, ariketa fisiko bizia egitean izan ezik (21/2020 ELDren 6.2 artikulua). Gimnasioan eta aire zabalean, ariketa fisiko bizia egiteagatik maskararik erabili behar ez denean, 2 metroko segurtasun distantzia gordeko da gutxienez. Gimnasioa maiz egurastuko da, eta instalazio bakoitzaren protokoloa beteko da beti.

Jarduera fisikoen irakaskuntza-ikaskuntzan, murriztu egingo da jarduera fisiko bizia ezinbestekoa den uneetara. Ahal den neurrian, ikasleek ez dute kontakturik



izango eta ez dute materialik partekatuko. Ikasleek berek garbituko dute materiala eta instalazioa, talde aldaketa egin behar denean edo talde bereko beste pertsona batek erabili behar duenean, desinfektatzailez bustitako papera erabiliz horretarako.

Ikasleek gel hidroalkoholikoz garbituko dituzte eskuak, eta oinetakoak desinfektatuko dituzte gimnasioaren ateko alfobretan.

6. PRACTICUM ETA GRAL

Practicum mintegien eta GRAL tutoretzen baldintzak fakultatean ematen diren gainerako irakasgaien baldintza berberak izango dira.

Practicumaren eta GRALren ebaluazioaren baldintzak fakultatean ematen diren gainerako irakasgaien baldintza berberak izango dira.

Practicumean, aintzat hartuko da “Covid-19aren agertokiari dagokion jarduketa protokoloa”. Hala eta guztiz ere, nahitaez bete beharko da praktiken zentroak/dagokion erakundeak hitzartu eta jakinaraziko duen araudia. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [Bilboko Hezkuntza Fakultateko COVID protokoloa](#).

7. TUTORETZAK

Tutoretzak egingo dira aurrez aurre edo online. Bai kasu batean bai bestean, irakaslea bere bulegoan egongo da.

8. ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK

Ahal bada, administrazio zerbitzuak telematikoki arituko dira irakasle-ikertzaileekin eta ikasleekin (posta elektronikoa edo telefonoa).

Ezinbestekoa denean aurrez aurre aritzea, hitzordua eskatuko da (bi-iue.idazkaria@ehu.eus). Hitzordurik eskatu ez bada, idazkaritzara jo duten pertsona guztien datuak hartuko dira.

9. GELAK EGURASTEA

Airearen zirkulazio mekanikoa jarri da martxan ikasgela guztietan, eta atezainek gelen leihoak zabalduko dituzte goizero, komeni delako ere leihoak irekitzea. Ezin bada goizetan ireki, ahal bezain laster egingo da.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO

Espero dugu denon artean gai izango garela modu seguruan itzultzeko jarduera presentzialera. Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta agur bero bat.

10. EGELA ETA BILERA BIRTUALAK BLACKBOARD COLLABORATE-REKIN

Bilera birtualak batez ere, hezkuntza arloan sortzeko tresna da. Prestakuntza saioak, tutoretzak, tailerrak... egiteko baliagarria izango da. Momentuko komunikazioa ahalbidetzen duen kanal ezberdinak (txat, audio, bideo), edukiak aurkezteko berariazko tresnak, aplikazioak partekatuz gure pantailan egiten ari garena beste erabiltzaileei erakusteko aukera, arbel digitala eta erabiltzaileak moderatzeko tresnak ditu. Informazio gehiago kontsulta dezakezu hemen.

*Dokumentu hau egokituz joango da egoeraren bilakaeraren arabera. Edonola ere, eguneratuta aurkituko duzue fakultatearen web orrian.



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO



1. ERANSKINA

FORMAKUNTZA BIMODALERA ALDATZEKO PLANA
2020-21

Aurkibidea

Zergaitik aldaketa hau?	2
Zertan datza formakuntza bimodala?	3
Datuen tratamendua	3
Non emango dira klaseak?	4
Taldeak nola banandu?	4
Noiz izango da aldaketa?	4
Nori eskatu laguntza?	4

Zergaitik aldaketa hau?

Uztailaren 9an, errektoretza-taldeak irakaskuntza-plangintzako dokumentu bat helarazi zuen, hiru parametro kontuan hartuta: gutxienez % 75eko presentzialtasuna, gela bakoitzean 50 ikasle baino gehiago ez egotea eta 1,5 metroko distantzia personeren arteko ahalbidatzeko gomendioa. Argibide horiekin, ikasleen arteko distantzia ahalik eta handiena izateko eta Fakultatean aldi berean ahalik eta ikasle gutxien izateko, Fakultatean goizeko eta arratsaldeko ordutegi antolatzen ditugu hiru titulazioetan; guztira, 21 talde goizez eta 24 arratsaldez. Talde bakoitzari gela bat esleitu zitzaion, edukiera erdira murriztuz, gutxi gorabehera. Logikoa denez, 50 ikasleren kopurua mantentzea ezinezkoa zen kasuetan, bi gela esleitu genituen; horretarako, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzari 5 kamera eskatu ziren (2 kamera finko eta 3 mugikor) ispilu-gelak sortzeko asmoz. Plan hori dekanotzak, graduako koordinatzaileekin eta moduluko koordinatzaileekin batera egin zuen, eta UPV/EHUko Fakultateko Batzordeak eta Gobernu Batzordeak onartu zuten.

Hala ere, irailaren 4an, errektore-taldeak jakinarazi zigun 1,5 metroko distantzia ez zela gomendagarria derrigorrezkoa baizik. Une horretatik etengabeko aldaketak egin ditugu parametro berrietara egokitu ahal izateko, baina 1,5 metroko gutxienerako distantzia horren derrigortasunak ez digu aukerarik ematen fakultate honetan matrikulatutako ikasle guztiak beharrezko segurtasun-bermeekin kokatzeko. Beraz, egoera berri honetan, Graduako koordinatzaileekin koordinatuta, erabaki behar izan dugu Fakultatearen irakaskuntza UPV/EHUk planteatutako **BIMODAL** formatura igaroko dela. Bertan, ikasleen % 50ek aurrez aurreko eskolen jarraipena egingo du gelan, eta beste % 50ek online jarraituko du BBColaboraterekin beren etxeetan, eta asteka txandakako sistema bat ezarriko da.

Halaber, gogoratu nahi dugu, 2020ko urriaren 9koa, UPV/EHUko Gradu eta Graduondoko ikasketen arloko errektoreordena, konfinamendu egoeretan gradu eta masterreko irakaskuntzak irakasteari eta ebaluatzeari buruzko zirkularrean, edukiera mugatuaren eta urruntze sozialeko agertokiaren lehentasuna adierazten dela. Ondorioz, aurrez aurreko prestakuntza bat proposatzen da, klase telematikoekin eta saio asinkronoekin osatua. Hala ere, Errektoreordearen zirkular horrek berak honako hau adierazten du eGela eta Blackboard Collaborateren erabilerari buruz: “Ikasleei laguntza akademikoa bermatzeko eta graduako eta masterreko irakaskuntzetan ezarri behar izan diren irakaskuntzaren, tutoretzen eta ebaluazioaren garapenaren egokitzapenak erabat gauzatzeko, **sail guztiek bermatu behar dute irakasten dituzten irakasgai guzti-guztietan eGela aktibo egongo dela**, tresna unibertsala baita ikasleekin zuzeneko komunikazioa



izateko, bertan planteatu daitezkeelarik lan autonomoaz egindako eginkizunak zein online tutoretzak. Horrekin batera, egokia eta posible den guztietan, Blackboard Collaborate (BBC) erabiltzea **gomendatzen** da. Horrek ziurtatzen du irakasle eta ikaslearen arteko kontaktu birtuala, baina berehalakoa, irakaskuntza telematikoa baldintzetan, dela irakasgaien plangintza bimodalaren parte delako, dela urrutiko irakaskuntza, gerora sortutako premia izan delako. Tresna horiek erabiltzea beharrezkoa da osasun agintarien aginduz mugatuta dauden eta, beraz, UPV/EHU ikasketen jarraipen presentziala egiteko aldi baterako ezinduta dauden ikasleek ikasketekin eta tutoretzekin jarraitu ahal izateko, bai eta unibertsitatean duten lanpostura bertaratzeko ezinduta dauden irakasleek kasuan ere, betiere aldi baterako lan ezintasunean ez badago”.

Zertan datza formakuntza bimodala?

“2020-2021 ikasturtea: Irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak” dokumentuan adierazi bezala, prestakuntza bimodala da:

- Irakaskuntza-ikaskuntza presentzial egokituan jarduera gehienbat presentziala konbinatzen da telepresentzialarekin eta ikasleek ikaskuntza autonomorako prestakuntza jarduera ez-presentzialekin. Irakasgaiak taldeen formatu presentzialesan ohikoa den lan metodologia erabiltzen da, baina ikasle batzuek urrunetik jasotzen dute, BBCren bidez eta ahal bada aldi berean; horrela, irakaslearekin eta ikaskideekin elkarrekintzan aritzeko aukera dute. (...) Irakaskuntza presentzial egokituko eszenario bat diseinatzean, hainbat multimedia elementurekin (kamera eta mikrofonoa) osatutako BBC tresna erabiltzea proposatzen da, jarduera presentziala eta telepresentziala konbinatzeko sistema gisa. Batzuetan, irakasgaiaren espezifikotasuna dela-eta, irakasleek prestakuntza bimodal asinkronikoa planteatu dezakete. Kasu horretan, etxean dagoen taldeak zeregin autonomo bat egingo du, irakasleak planifikatua eta tutorizatua, baina BBCK gela fisikoko saioari jarraitu gabe

- Irakaslea eta ikasle batzuk ikasgela fisiko berean daude, eta gainerakoek BBCren bidez parte hartzen dute. (...) Taldearen zati bat fisikoki ikasgela batean egotea, eta beste zatia, berriz, urrunetik konektatzea unibertsitatearen kanpoan egonda. Kasu horretan, txandak antolatu behar dira bi taldeen artean, modu hezkidetzailan (esate baterako, astea: taldearen erdiek irakaskuntza presentziala jasotzen dute aste batean, eta hurrengoan ez doaz ikastegira eta modu telepresentzialesan egiten dute lan). Formula hori eGelan sartuko da. Irakasle arduradunek helburu akademikoetarako eta irakaskuntza helburuetarako egokia dela irizten badiote, saioak irudi eta/edo soinu formatuan grabatu ahal izango ditu, gerora, eta helburu horietarako, irakasgaiaren/taldearen irakasle arduradunek nahiz dagozkion ikasleek kontsultatu ahal izateko.

Datuen tratamendua

Aipatutako agirian (UPV/EHU, 2020) jaso bezala, irakaskuntza bimodalaren arloan egiten diren datu pertsonalen tratamenduak datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako eskubide eta bermeak errespetatuz egingo dira.

Ikasleek ezingo dute irakaskuntza saioen grabazioak egin, baina irakasleek egindako grabazioak mantendu egingo dira eta gero eskuragarri egongo dira, grabazioa egiteko helburuei erantzuten jarraitzen duten bitartean. Ildo horretan, soilik dena delako irakasgai/taldeko ikasleek eskuratu ahal izango dituzte grabazio horiek. Edonola ere,



ahaleginak egingo dira irakaskuntza saioetan ez daitezzen grabatu, tratatu edo gorde desgaitasuna duten pertsonak, genero indarkeriaren edo jazarpenaren biktimak eta, oro har, kolektibo kalteberetako kideak identifikatzeko aukera ematen duten datu pertsonalak.

Non emango dira klaseak?

Formakuntza bimodala aurrera eramateko, talde bakoitzak badu esleituta gela arrunt bat (orain arte erabilitakoa). Bertan kamera finkoa egongo da.

Gela espezifikoetan (Informatika geletan, gimnasioetan, tailerretan eta laborategietan) ez da kamera finkorik egongo. Horretarako, 7 ekipo mugikor izango dira erabilgarri.

Taldeak nola banandu?

Modulu bakoitzak erabaki behar du. Dena den, Dekanotzak planteatzen duen orientabidea hau da.

-Mailaren batean, aste berean eskola magistralak eta Gelako Taldearen eskolak badaude, gomendioa da % 50 Gelako Taldeari ezartzea, hau da: Gelako Taldeko ikasleen erdia etortzea eskola magistraletara.

-Gelan irakasgairako talde egonkorak badaude, gomendagarria da taldearen zati bat (adibidez, 2 ikasle) eskola presentzialera etortzea eta beste biak etxetik aritzea. Horrela, talde guztiek izango dute norbait saio guztietan.

Moduluak beste modu bat adosten badu, Graduako Koordinatzailea informatu, eta dekanotzaren onaspena izango da. **Nolanahi ere, moduluko irakasle guztiek adostu beharko dute taldeen banaketa.**

Noiz izango da aldaketa?

Aurreikuspena da urriaren bukaeran dena prest egotea. Dena den, Fakultate osoa Bimodalera pasatzeko egun zehatza baino aste bat lehenago informatuko da.

Kameren erabilerari buruzko formakuntza online antolatuko da hurrengo asteetan. Fakultateko web orrian, COVID atalean, ekipo finko eta mugikorren tutorialak eskura daitezke.

Nori eskatu laguntza?

- Kontu eta arazo teknikoetarako, kontaktuan jarri Enetz Beaskoetxearekin. enetz.beaskoetxea@ehu.eus. Goizeko eta arratsaldeko lehen orduetan ere egongo da bere bulegoan, arazo teknikoak sortuko balira ere.
- Beste kontuetarako harremanetan jarri Moduluko koordinatzaileekin edo zuzen Graduako Koordinatzailearekin edo Titulazio Dekanordearekin (Isra Alonso). Israel.alonso@ehu.eus.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

*Dokumentu hau egokituz joango da egoeraren bilakaeraren arabera. Edonola ere, eguneratuta aurkituko duzue fakultatearen web orrian.